



Ekainaren 27ko 4/1990 Foru Arauak, Tasa, Prezio Publiko eta Bizkaiko Foru Aldundiko beste Zerga Baliabideei buruzkoak, Foru Aldundiko baliabide jakin batzuen araubide juridikoa araupetzen du, besteak beste, zerbitzuak ematearen edo bere eskumenari dagozkion jarduerak egitearen prezio publikoarena.

Aipatu Foru Arauaren 28. artikulua ezartzen du Foru Dekretuaren bidez finkatu edo aldarazi behar dela prezio publikoen zenbatekoa.

Berori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuak hala eskatuta, 1993ko azaroaren 16ko bileran Gobernu Kontseiluak aurretiaz eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATU DUT:

1. Artikulua-Xedea

Bizkaiko Foru Aldundiak gertutu eta argitaratutako agiri kartografikoen salmenta da prezio publiko honen xedea.

2. Artikulua-Ordaintzeko behartuak

Ondokoak daude ordaintzeko behartuta: pertsona fisiko eta juridikoak eta Bizkaiko Luralde Historikoko Zerga Foru Arau Nagusiaren 33. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, aurreko artikuluan adierazitako zerbitzuak eskatzen dituztenak.

3. Artikulua-Kobrantza

Zerbitzugintza hasten denetik sortuko da prezio publiko honen obligazioa. Hala ere, ordainketa eskabidea azaltzen den unera aurrera daiteke.

4. Artikulua-Zenbatezko elementuak

Prezio publikoak, BEZa barne, hurrengo tarifen arabera behar du izan:

4.1. Kartografia

Eskala	Poliester papera Pzta./Unitateko	Koloreko papera Pzta./Unitateko	Paper arrunta Pzta./Unitateko
1:500	5.980	1.380	920
1:1.000	4.945	1.150	805
1:2.000	3.910	920	621
1:5.000	2.990	690	460
1:10.000	1.955	460	322
1:20.000	920	230	161



4.2. Aurreko serie kartografikoen euskarri magnetikoak. Minuta kartografikoa Eskala:

Eskala	Pzta./Unitateko
1:500	14.950 pzta.
1:1.000	13.800 pzta.
1:5.000	11.500 pzta.

4.3.-Sare geodesikoaren aipamenak, Nibelazio Puntuak, Triangelaketa, Doitasun Poligonalak eta Nibelazio Geometrikoen Kotak (aipamenaren fotokopia eta krokisa barne)

	Pzta./Unitateko
Lehen mailako erpinak	345
Bigarren mailako erpinak	345
Hirugarren mailako erpinak	345
Laugarren mailako erpinak	345
Triangelaketa	345
Doitasun poligonak	345
Nibelazio kotak	345

4.4. Hegaldi fotogrametrikoen aireko argazkien fotokopiak.

	Pzta./Unitateko
Aireko fotogramaren zuri-beltzeko fotokopia	69

4.5. Mapa Argitalpenak

	Eskala	Pzta./Unitatea
Bizkaiko Mapa	E:1/100.000	920
Bizkaiko Gida-Mapa	E:1/50.000	920
Nerbioiko Itsasadarreko Mapa	E:1/10.000	1.150
Uribe-Kostako Pasabidearen Mapa	E:1/10.000	1.150
Mundakako Itsasadarreko Mapa	E:1/10.000	1.150
Ibaialdeak-Durangoko Mapa	E:1/10.000	1.150
Elantxobe, Lekeitio, Ondarroako Erlaizeko Mapa	E:1/10.000	1.150
Bizkaiko erliebedun Mapa	E:1/100.000	3.450



5. Artikulua-Hobariak

5.1. Herri Administrazioek prezio publiko honi dagokion zenbatekoan 100eko 30eko hobaria izango dute 4. artikuluan adierazitako agiri grafikoetan, 4.2 atalean adierazitakoetan izan ezik, horiek 100eko 50eko hobaria dute eta.

5.2. Era berean, aintzitetitako Irakas Erakundeek zenbatekoaren 100eko 30eko beherapena izango dute, beti eta eskabidea, behar den bezala bidezkotuta, Ikastetxearen Zuzendariak sinatuta badator.

5.3. Lurralde Historikorako interesa duten ikerketa lanen arduradunek prezio publiko honen zenbatekoaren 100eko 30eko hobaria izango dute, aurretiaz Lanaren Zuzendariaren eskabide arrazoitua dela eta, behin lana amaituz gero, Hirigintza Sailari lanari ale bat emango zaiolako konpromezua hartuta

5.4. Aurreko ataletan adierazitako hobari guztiak Hirigintza Sailari eskatu behar zaizkio eta horrek beharrezko izango du Hirigintza Saileko Zuzendariaren ontzat emana.

6. Artikulua-Salbuespenak

Foru Aldundiko zerbitzuen eskabideak salbuetsita egongo dira; horiek dagokion Zuzendari Nagusiaren idazki baten bidez azaldu behar dira eta, bertan, eskabidearen zergatia adierazi behar da. Era berean, eskabide horiek Hirigintza Saileko Zuzendariaren ontzat emana behar dute.

7. Artikulua-Kudeaketa eta Likidazioa

Ogasun eta Finantza Sailari dagokio prezio publiko hau kobratzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa jarduketarako baldintza gisa, zorraren aurretiazko ordainketa eskatuko da. Ordaintzeko behartuta dagoen subjektuak autolikidazioa egingo du, eskudirutan eta berariaz prestatutako inprimakiaren bidez egingo dena.

XEDAPEN ERANTSIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren edo bere Erakunde Autonomiadunen prezio publikoen oinarriak, tarifak eta zenbatekoak, Foru Dekretu honen emaitza direnak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauak eguneratuta izan daitezke, ekainaren 27ko 4/1990 Foru Arauaren 27.artikuluaren 1. atalean ezarritakoa kontuan hartuta.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Dekretu hau indarrean jartzen den datatik, abenduaren 4ko 139/1990 eta uztailaren 7ko 91/1992 Foru Dekretuak, gai honetan araupetzailerak, indargabetuta geratzen dira.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

Foru Aldundiko 114/1993 FORU DEKRETUA, azaroaren 16koa, zerbitzu kartografikoak emateagatik prezio publikoak araupetu eta ezartzen dituen.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua eskuetsita geratzen da Foru Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.
2. Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 1993ko azaroaren 16an

OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO DIPUTATUA

Iñaki de Goiri y Barron

DIPUTATU NAGUSIA

Jose Alberto Pradera Jauregi